

# PICHICHI

Eltze motzak sukaldian  
 Dauzka lertu bearrian  
 Urdai—zati bat baba—zarrekin  
 Borroka biziyan  
 Katuba su-basterrian  
 Dago koluska betian  
 Eta gozien arjo zitala  
 Nere sabelian.

*Pichichi* lo koluškatik  
 Esnatu da ta eltzetik  
 Atzapar-kako okerrarekin  
 Urdaya ostu dit  
 ¡Arranopola! gaurtandik  
 Ez dit egingo bezterik  
 Baldinta nunbait katubentzako  
 Badago guanterik.

Sabela neukan billutsa  
 Ta erosi nuan arrautza  
 Urrengo chandan su-basterrian  
 Arkitu nun utza  
 ¡Deabru gaiztoaren putsa!  
 Etzeukan agiñ amutza  
 Arrautzarikan erosi ez det  
 Andikan onutza.

¡Nere Jaungoiko lastana  
 Orrekin daukadan lana!  
 Bizirik gabe utziko nuke  
 Lapurti chaldana  
 Aurrera bada len zana  
 Zuzendu ez nezakeana  
 Ortzak kentzera eramango det  
*Dentistarengana.*

Ille zikiñak miaztu  
 Arratoyekin jolastu  
 Arrapatzen dun jaki guziya  
 Jan edo lardastu  
 Su-basterrian lokartu  
 Kezkarik gabe esnatu  
 Nayago nuke neroni ere  
 Jayo banitz katu.

JOSÉ ELIZONDO